

10. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan izango ditugun kostuak hauek dira:

Gure enpresa, lagun bat emango digun lokal batean ekoitziko dugu, Gasteizko industrialdean egongo dena; ondorioz, dohainik izango da. Lokal honetan, kostu aldakor bat izango dugu argindarraren truke. Azkenean, makinaria bermatzeko beharrezkoa da. Azken hau kostu finko bat sortuko digu.

Lokalaren barruan, altzari asko berrerabiliko ditugu: familietatik, zakarrontzitik, lagunetatik, etab. Hau beti egingo dugu ingurumena hobeto zaintzeko eta produktu berriak ez erosteko, gure helburua baita. Horretaz gain, ordenagailuak eta mobilak beharko ditugu, lpe kostu bat sortzen. Azken hauek, WiFi sare bat behar dute, kostu finko berri bat izaten.

Ekoizteko, osagai batzuk behar izango ditugu: plastikoa, panel foltovoltaiko txiki batzuk, etab. Osagai hauek gure lokalera heltzeko, garraioa ordaintzea beharrezkoa izango da, kostu aldakor berri bat sortzen. Gainera, gure produktua ekoiztuta egon eta gero garraio berri bat ordaindu beharko dugu.

Enpresa honen langile, soldata finko bat izango dute hilabetero, beti bermatzen lanbideen arteko gutxieneko soldata. Hortik gehituko egingo da kopuru bat diru-sarreraren arabera.

Horretaz gain, produktu berri eta ezberdin bat denez, patente bat ordainduko dugu, inork ez kopiatzeko gure produktua.

Gainera, erantzunkizun mugatuko sozietate bat garenez, zergak ordaindu behar ditugu. Hauen barruan, BEZ-a dago, gure produktuetan ezarrita dagoena, eta gobernura ordaindu behar duguna. Gainera, sozietate bat izateagatik Sozietateen Gainera zerga ordaindu behar dugu. Azken hau, irabazietan ezartzen da.

Bukatzeko, gure produktuaz jendea jakiteko, publizitatea sortuko dugu telebistako iragarkietan, irratan eta gure sare sozialetan. Hori kostu berri batzuk sortuko ditu.